


Herririk herri

Obrak amaitu dira, eta bihartik aurrera, Gernikatik Durangora joateko, ez da Zornotzako herrigunetik igaro beharko > 6



EAJ eta Bildu berdinduta daude udalaren inkestan

Durango Udalak egindako azterketa soziopolitikoaren arabera, zortzina zinegotzi eskuratuko lituzkete maiatzeko hauteskundeetan

Inkestaren arabera, EAJk irabaziko lituzke maiatzeko udal hauteskundeak, botoen %36 lortuta; baina gertu dauka EH Bildu, botoen %35,5ekin. Hala ere, alderdi biek zortzina jesarleku eskuratuko lituzkete. Podemos Ahal Duguk, berriz, botoen %8gaz, bi ordezkari izango lituzke. Zinegotzi bana galduko lukete PSE-EEK eta PPK. Herriko arazoengatik ere galdetu dute ikerlariak. Horren arabera, langabezia eta aparkaleku falta dira herritarren kezka nagusiak. Komunikabideei dagokienez, ANBOTO da hedabide irakurriena. > 3



Marea laranjaren amak

Euren semeen kasuek bultzatuta, leuzemiaren kontrako borroka abiatu dute Susana del Amok eta Marlen Aranguren. Domekan, Durangon antolatuko duten jaialdian batutako dirua ikerketara bideratuko dute. > 10

DURANGO 2015

X. AUKERA AZOKA

LANDAKO GUNEA MARTXOAK 13-14-15 MARZO

ORDUTEGIA

OSTIRALA 10.00 - 14.00
LARUNBATA 17.00 - 21.00

IGANDEA 11.00 - 14.00
17.00 - 19.00

LANITZALEAN



Durangaldea > 4

Kontsumitzaileen kexen ia erdia telefoniagaz lotutakoa da

Otxandio > 8

Euskaraz Bizi Eguna Otxandion izango da, apirilaren 18an

Berriz > 9

Beinke euskara elkartea aurkeztuko dute asteburuan

Durango > 2

21 dendak parte hartuko dute asteburuko Aukera Azokan

Herririk herri**Sakabanaketaren kontrako bandera kentzeko agindu diote udalari****ZALDIBAR I.E.**

Urtarrilean, Espainiako Gobernuaren EAeko ordezkariaren agindua jaso zuten Zaldibarko Udalean, euskal preso politikoek herritarrean eskatzeko udaletxeko balkoian ipinita dagoen bandera kentzeko. Otsaileko udalbatzan, udal ordezkariak aho batez onartu zuten, gai honi dagokionez, udalaren defentsa egingo duten abokatua izendatzea.

Agintaldi hasieratik dago ikur hori udaletxean, eta Arantza Baigorri alkateak aurreratu duenez, "agindu horren kontra dauzkagun baliabide guztiekin ariko gara: EH Bilduk beti esan du bake prozesuari lagundu gura diola, eta ikurra udaletxean edukitzea defendatuko dugu, sakabana-keta ilegala dela salatzen".

Trumoitte batzar irekia deitu du datorren martitzenerako**GARAI M.O.**

Trumoitte kultur elkarteak batzar irekia deitu du datorren martitzenerako, herritarren partaidetza sustatu guran. "Bestelako iritziak" entzun gura dituztela esan du Ane Etxeita Trumoitteko kideak. Horrela, euren eskaintza ere berrituko eta zabalduko litzateke. Adibidez, irteerak berreskuratzea eta umeentzako eskaintza indartzea hausnartzen dabilta. Urtean hainbat ekintza antolatzen ditu Trumoitte: herriko jaiak, sanjoanak, txitxi-burduntzi eguna eta bertso saioak, besteak beste.

EAJren baldintza, udal aurrekontua babesteko

Gazteluko saneamendua konpondu gura dute

ABADIÑO Itsaso Esteban

Jeltzaleek agerraldia egin zuten atzo, Abadiñoko batzokian, gobernu taldearen 2015erako udal aurrekontu proposamena babesteko EAJk mahaigaineratutako baldintzak zeintzuk diren azaltzeko. Eneko Etxebarria zinegotziak azaldu zuen azken asteotan gobernu taldeagaz negoziatzen ibili direla, eta, ondo bidean, hurrengo udalbatzarrean eztabaidatuko dutela gaia. Etxebarriak esan du Gaztelua auzoko saneamendu sarean lanak egitea dela ipini duten baldintza, Abadiñoko Independententeak taldearen gober-

nuaren aurrekontu proposamena babesteko. Auzoko dozena bat baserriri zerbitzua emango dien putzu septikoa eraikitzeko 180.000 euroko inbertsioa jasoko du, jeltzaleen berbetan, 2015eko udal aurrekontuak. Saneamenduko lanez gain, udaletxean irisgarritasuna hobetzeko igogailu bat ipintzeko lanak egiteko inbertsioa (73.000 euro), udaletxeko teilatua konpontzeko diru atal bat (86.000 euro) eta udaleko bulego tekniko berrantolaketa eraman ahal izateko abade etxea konpontzeko beste partida bat (291.000 eurokoa) jasotzen du aurrekontu proposamenak.



Batzokian egin zuten agerraldia jeltzaleek, atzo.

Trinket ondoko aparkalekuak berrantolatuko dituzte**ABADIÑO I.E.**

Trafikoa eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko helburuagaz berrantolatuko dituzte trinket inguruko aparkalekuak. Gobernu taldeak esan duenez, 21 aparkaleku atonduko dituzte inguru horretan. Bandoa kaleratu du Abadiñoko Udalak, herritarrei

aldaketa horien berri emateko, eta aukera zabaldu du, abadiñarrek euren ekarpenak egin ditzaten. "Proiektu xumea da", esan du Jose Luis Navarro alkateak, "baina uste dugu mesede handia egingo diola herriari; aparkaleku gehiago sortuko direlako, trafikoa baretuko delako eta oinezkoentzako hainbat gune atonduko direlako". Oinezkoentzako guneak eta zebra bideak markatuko dituzte, eta Zelaietako eta Muntzarazko bidegorriak lotzeko lanak ere egingo dituzte, besteak beste.



Iazko Aukera Azokako irudia.

21 dendak parte hartuko dute X. Aukera Azokan

%70, %80 eta %90erainoko deskontuak izango dira

DURANGO Markel Onandia

X. Aukera Azoka izango da aurtengoa, eta antolatzaileek 10.000 lagun batzea espero dute. Dendak Bai elkarteak antolatutako azokan, %70, %80 eta %90erainoko deskontuak eskainiko dituzte 21 komertzio gaurtik domekara, Landako Gunean. Sektore ugari eskainiko dituzte produktuak: moda, oinetakoak, atsedeen sistemak, autoak... Doako azoka da, eta Landako Guneko aparkalekua ere ordu birako doan edukiko dute erosketak egiten dituztenek.

Guillermo Oarbeaskoa Dendak Bai elkarteko presidentek

eta Araceli Guerrero teknikariak azaldu dutenez, produktuen salmentaz gainera, bestelako hainbat aukera eskainiko dituzte: kafetegia, ludoteka, poney ak... Zozketa bat ere egingo dute erosleen artean; lehenengo saria 300 euroko txartel bat izango da, eta beste sari bi egongo dira 100 eurokoak. Elkarteko dendetan erabili ahalko dira txartelak. Ordutegia hau izango da: barikuan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; eta, domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Herria elkarteak 3.120 euro eman dizkie Jaedi eta Caritasi**DURANGO Jone Guenetxea**

Herria auzo elkarteak 3.120 euro banatu ditu Jaedi eta Caritas elkarten artean erdi bana. Donazioa baliabiderik ez duten pertsonen laguntzera bideratu gura izan dute. Adierazi dutenez, Erregeetako loterian saria jaso zuten -sei euro bazkideko-, baina bazkide batzuek ez zuten denboraz eskaera egin, eta, ho-


rregatik, diru hori dohaintzan ematea erabaki dute. Loterian 2.544 euro irabazi zituzten, eta horri txitxi-burduntzi egunean bildutako 576 euro gehitu dizkiote. Badakite diru-laguntza horregaz ez dutela konponduko jende askok bizi duen "egoera tamalgarria", eta erakundeei egoera bideratzeko neurriak hartzeko dei egin diete.

anboto komunikabideakBixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558Erredakzioa:
946 232 523Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org2015eko martxoaren 13a,
13. urtea - 581. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Martinez de Arenaza
Yarza, Amaia Huarte Basabe.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onandia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña,
Martxel Zubia Arrinda,
Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EAJ eta EH Bildu berdinduta daude udalaren inkestan

EAJk irabazi arren, zortzina aulki jasoko lituzkete EAJk eta EH Bilduk

DURANGO Markel Onaindia Udalak egindako ikerketa soziopolitikoaren arabera, EAJk gutxiatik irabaziko lituzke udal hauteskundeak, botoen %36 lortuta, eta EH Bildu %35,5ekin gertu daudela. Baina alderdi biek zortzina jesarleku eskuratu lituzkete. Udalak aitortu du EAJren eta EH Bilduren artean ia berdinketa tekniko aurreikusten dela: "Hauteskundeetako aurreikuspenak inoiz baino estuagoak dira".

Podemos ikusmina sortzen dabil, eta botoen %8 eta aulki bi jasoko lituzke; laugarren indarra litzateke. Alderdi berriaren


sarreragaz, zinegotzi bana galduko lukete PSE-EEk eta PPK. Inkestaren emaitzek adierazten dutenez, PSE-EE da hirugarren alderdia, botoen %9,5egaz eta aulki bigaz. PPK botoen %8 lortuko luke, Podemosek beste, baina aulki bakarria beteta.

Gobernua gehiengoz eratze-ko hamaika zinegotzi behar dira Durangon; beraz, bai EAJk bai EH Bilduk akordioak beharko lituzkete.

557 durangarri galdetuta garatu zuten ikerketa urtarrilean. Zein alkate gurako luketen ere erantzun zuten inkestatuek, eta Aitziber Irigoras (EAJ) alkatea

da haien gogokoena, %15,1eko portzentaiagaz. Zein den zehaztu barik, Bilduko hautagaien bat legoke bigarren, %3,4gaz, eta Dani Maeztu (Aralar) hirugarren %2gaz. Baina zaila da hori hauteskundeekin alderatzea, alderdi bi horiek EH Bildu koalizioan doazelako eta oraindik ez dutelako aurkeztu hauteskundeetarako hautagaia.


2011ko hautagaiak aztertuta, Irigoras inkestatuen %82k ezagutzen dute; Juan José Gastañazatorre (PP) %39,7k; Pilar Ríos (PSE-EE) %38,6k; Dani Maeztu (Aralar) %33,9k eta Urdaspal Bolinaga (Bildu) %17,2k.



GOIZTIDI DIAZ

> EAJ Ustekaberik ez. EAJ-PNVk indar politikorik bozkatuena izaten jarraituko luke, orain lau urteko hauteskundeetako datuak hobetuz, gainera. Herritarren iritziz, zintzotasunak, konfiantzak eta kudeaketa onak desberdintzen gaitu. Horregatik, hauteskundeak be-

rriro EAJ-PNVk irabaztea gustatuko litzaieke. Aitziber Irigorasek datu ezin hobekak ditu, alkategai gogokoena izateaz gainera, ezagunena ere badelako. Entzun diezaiozun, beraz, herriari, eta jarraitu beti bezala gogotsu lanean, eta guztiok batera Durango *Hazi Arazten*.



EIDER URIBE

> EH BILDU Durangora aldaketa dator, eta aldaketa horren parte izango gara. Hileak daramatzagu lanean; prozesu parte-hartzaile bat jarri dugu martxan, proposamenak jaso, eta aldaketarako alternatiba herritarra aktibatzeke, eta lantaldeak martxan daude. Bukatu dira

udalean ate itxiak, aldebarreko erabakiak eta kontratuak lagunei emateko garaiak. Aldaketa sozial eta politikorako ateak irekiko ditugu. Hurrengo gobernua durangarrena, euren beharri-za eta proposamenei begirakoa izango da. *Oinguen Bai!*



PILAR RÍOS

> PSE-EE Durangoko EAJk Udalkutxako 20.000 euro baino gehiago gastatu ditu inkesta alderdikoi eta elektoralista batean. Horregatik, EAJk eta gobernu taldeak diru publikoagaz egindako erabilera alderdikoia salatu nahi dugu. Salagarria, kritikagarria eta exijitzeko


modukoa dela uste dugu. Eta, EAJk aurretiaz kontratatutako inkesta guztiak bezala, Durangoko Udaleko ikerketa bat dela esanez aurkeztuko digute hau ere, guztiz subjektiboak diren ondorioen dekalogo batez eta erabat makillatutako datuekin.



JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

> PP Boto intentzioaz gainera, herritarrek herriko gaien inguruan duten iritzia eta euren kezkek ere agertzen dira ikerketan. PPTik esan izan dugun moduan, langabezia da arazo nagusia, eta aparkaleku falta ere arazo moduan ikusten da.

Arduratu egiten nau udalak parte-hartzerako daukan tresna [Tokiko Agenda 21] 10etik 8k ezagutu ez izanak, eta horrek haren eraginkortasuna zailantzen jartzen du. Herritarrekin feedbacka sustatzeko komunikazio bideak zabaltzea beharrezkoa da.



JULIAN RÍOS

> PODEMOS Podemos Ahal Dugutik uste dugu inkestek tendentzia batzuk erakusten dituztela, une zehatz bateko argazkiak direla. Baina erakusten dute Durangon ere aldaketa bat behar dela eta herritarrek eskatzen dutela. Politikako egiteko moduak aldatzeko sortu da

Ahal Dugu, herritarren beharri-za lehenetsiz eta herritarrek gidari izanda. Partaidetza, gardentasuna, herri subiranotasuna eta botere herritarra dira Ahal Duguren DNA. Horregatik, udalean alternatiba izateko, Herriaren Eskubidea plataforma bultzatuko dugu.

Euskal nazio sentimendua dute inkestatuen %45ek

%3,1 sentitzen dira bakarrik espainiar



Langabezia eta aparkaleku falta dira durangarren kezka nagusiak.

DURANGO M.O.

Durangoko Udalak aginduta, Gizaker enpresak egindako ikerketa soziopolitikoak hainbat alor jorratzen ditu, eta datu adierazgarri ugari atera daitezke bertatik. Esaterako, naziotasunaz galdetuta, euskal nazio sentimendua agertu dute inkestatuen %45ek. Kontrara, %3,1 sentitzen dira bakarrik espainiar. Erdibidean, espainiar baino euskaldunago sentitzen dira %15,4, eta %0,9 alderantziz. Bi naziotasunak parean dituzte %21,5ek. %13,3k ez dute jakin edo ez dute erantzun.

Durangarren arazoak

Durangon ikusten dituzten arazoengatik, %41ek adierazi dute ikerlariak. Horren arabera, langabezia eta aparkaleku

falta dira herritarren kezka nagusiak. Gehiengoak uste du TAO sistema ez dela aparkalekuen arazoa konpontzeko irtenbidea, eta, sistema hedatzea ez dute beharrezko ikusten %66k. Bestalde, %77k uste du ez dela etxebizitza gehiago egiterik behar, eta, egiteko-tan, babes ofizialekoak izatea gurako lukete gehienek. Zabor biltzea sistemari dagokionez, 10etik 7,26ko nota ipini diote inkestatuek.

ANBOTO, irakurriena

Durangoko albisteen eta informazioen berri zelari izaten duten galdetuta, ANBOTO dago lehenengo postuan. Hain zuzen ere, %41ek adierazi dute euskara hutsez argitaratzen den hedabidea erabiltzen dutela informatzeko.

Durangoko Merinaldearen Amankomunitateagaz

Durangaldeko Behargintza

LANGABETUENTZAKO DOAKO IKASTAROA

BILTEGIKO MAKINERIA ETA KARGAK MUGITZEN IKASTEKO ETA ALTUERAN LAN EGITEN IKASTEKO IKASTAROA

ERAIKUNTZAKO LANBIDE TXARTELA

ELIKAGAIEN HIGIENEA

DATAK: 2015eko apirilaren 20tik maiatzaren 6ra arte.

ORDU KOPURUA: 60.

ORDUTEGIA: asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara arte.

TOKIA: Durangaldeko Behargintza.

IZENA EMATEKO EPEA: 2015eko apirilaren 9ra arte.

Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 DURANGO Tel.: 946 232 522

Ordutegia: asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.mdurango.org

Kontsumitzaileen kexen ia erdiak telefoniagaz lotutakoak dira

Telefoniagaz lotutako kexen atzetik argindarragaz eta gasagaz lotutakoak daude



Iaz ipinitako kexen %45 telefono fakturengatik eta konpainia aldaketengatik izan ziren.

DURANGALDEA M.O. Onaindia Telefonoaren fakturak, konpainia aldaketak eta *premium* izeneko mezuak dira kontsumitzaileen kexarako iturri nagusiak. Izan ere, Amankomunazgoak kontsumitzaileen bulegoaren iazko balantzea egin du, eta adierazi du kontsumitzaileen kexen ia erdia telefoniagaz lotutakoak direla; %45 hain zuzen ere. Oskar Zarrabeitia Aman-

komunazgoko presidentek ohartarazi du *premium* mezuak konturatu barik martxan jaritzen direla, eta gero "faktura oso handiak" eragiten dituztela. Telefoniagaz lotutako atzetik, kexen %15,4 argindarragaz eta gasagaz lotuta daude. Kontratuak bajaran emanda egon arren, kobratzen segitzen zutelako kexatu ziren batez ere, baina gehienak konpondu ziren.

885 kontsulta jaso zituzten kontsumitzaileen bulegoan, eta horietatik 156 erreklamazio orri sortu zituzten, Jaurlaritzako Kontsumo Sailera bidaltzeko. Beste guztiak bulegoan bertan konpondu zirela azaldu dute Amankomunazgoko ordezkariak. Gainera, nabarmendu dute hazi egin dela Eroskiren eta Fagorren ekarpenekin lotutako kontsulten kopurua.

Gazte Topaketak hasiko dira gaur, Abadiñon

DURANGALDEA M.O. Gazte mugimenduan dabilzan hainbat eragilek deituta, Gazte Topaketak egingo dituzte asteburu honetan, Abadiñon. Prentsa oharrean azaldu dutenez, eragile horiek irailean hasi ziren batzen, "eskualdeko gazteriaren eta gazteen borrokaren egoera" aztertu guran, eta hartu-eman horren ondorio dira topaketak. Gaur hasiko dituzte topaketak, eta, besteak beste, eskualdeko gaztetxeen eta gazte asanbladen etorkizuna, eta mugimendu feministaren borroka izango dituzte berba. Eztabaidak, berbaldiak, tailerrak musika eta bestelako aisialdi eskaintzak egongo dira.

Gaur, 18:00etan elkartuko dira gazteak, eta 18:30ean lehenengo eztabaida saioa egingo dute, gazte mugimenduaren egoera ardatz hartuta. Afariaren ostean, berriz, Aittu komunikazio proiektua aurkeztuko dute.

Bihar arratsalderako, ostera, makina bat tailer edukiko dituzte aukeran gazteek. Gainera, Pixontxis eta The Mockers taldeen kontzertuak egongo dira gauez.

Errepideko abiadura muga jaisteko eskaria

IURRETA Amaia Ugalde Errepide nagusiko abiadura muga 40 km/h-ra jaistea eskatu du Iurretako udalbatzak, mozio bidez. Bilduko udal taldeak aurkeztu zuen mozioa, eta aldaketa batzuk adostu eta gero onartu zuten EAJ, Bildu eta PSE-EEren aldeko botoekin; PP abstenitu egin zen.

Errepide nazionalako trafikoko eragiten duen zarata dela-eta, azterketa agindu zuen 2013an Iurretako Udalak, eta zarata hori baimendutako maila baino altuagoa zen. Horregatik, txosten hura eskuetan, 2013an bertan abiadura mugak murrizteko eskaria egin zuen udalak.

Zarataren arazoa, orain, hobetu beharrean "larritu" egin da. Duela hilabete batzuetatik 50 km/h-ko seinaleen ordeztu 70 km/h-ko muga adierazten duten seinaleak daude Iurreta erdibitzen duen N-634 errepidean. Mozioaren bidez, abiadura muga 40 km/h-ra jaistea -2013an egin zuten moduan- eta muga hori errespetatzeko neurriak hartzea eskatu dute.

Ume saharaiak etxean hartzeko deia egin dute

Oporrak Bakean egitasmoan kokatzen da deia

ELORRIO M.O. Sahararen aldeko elkartasuna sustatzen duen Lajwad elkar-teak udan ume saharaiak etxean hartzeko deia egin du. Oporrak Bakean egitasmoaren barruan kokatzen da proposamena, eta *Gaindi dezagun harresia* leloagaz zabaldu dute. Hiru dira ekimenaren helburu nagusiak: umeak udan basamortuan egiten duen berotik babestea, elikagai eskasiari aurre egitea eta osasun azterketak ahalbidetzea.

Umeak etxean hartzeko programan parte hartu gura dutenek apirilaren 10era arteko epea edukiko dute izena emateko.

Programan parte hartu gura dutenek apirilaren 10era arteko epea edukiko dute izena emateko.

ko. Gainera, martxoaren 26an batzar ireki bat egingo dute, 19:00etan, Iturrin.

Auzo-taxia ia 2.000 bider erabili zuten iaz herritarrek

ELORRIO M.O. Udalak auzo-taxi zerbitzuaren inguruko 2014ko balantzea egin du, eta prentsa ohar bidez azaldu du ia 2.000 bider erabili zutela elorriarrek. Zehatzago esateko, 1.936 bidaia egin zituzten taxi horretan. Hiru urte dira zerbitzua martxan ipini zutela, eta balantzea positiboa dela dio udalak, baita zerbitzua egonkortu egin dela ere.

Baserri eremuetako biztanleei herriguneagaz lotura errazteko asmoz ipini zuten auzo-taxia.

Dagoeneko 470 etxetan daukate ke detektagailua

Hirugarren faseari ekin diote, 55 aparatua ipintzeko

ELORRIO M.O. Suteen aurrean prebentzioa lantzeko helburuagaz, Elorrioko etxeetan ke detektagailuak ipintzeko egitasmoa jarri zuen martxan udalak, 2012an. Hain zuzen ere, etxeko kide guztiak -bakarrik zein taldeka bizi- 80 urtetik gorakoak direnean instalatzen dute sistema. Egunotan, egitasmo horren hirugarren faseari ekin diote, eta beste 55 aparatua ipini dituzte; horrela, dagoeneko 470 etxetan daukate ke detektagailua.

Joseba Mujika alkateordeak azaldu du egitasmoak garapen ona eduki duela, eta horregatik erabaki dutela zabaltzen jarraitzea: "Suteen kontrako sistema horren aplikazioak emaitza bikainak eman ditu aurreko faseetan. Hori dela-eta, udaletik, programa horren onuradun kopurua zabaltzea erabaki dugu, 80 urtetik gorako pertsona guztiak babestu ahal izateko".

Instalazio horiek eta mantentze lanak ordaintzeko, 10.000 euro erabiliko ditu udalak.

Kaixo! Ireland

Uda Irlandan gozatu
Irlandako familia batekin
ingelesa ikasten

3aste
1400€

Jar zaitez gurekin harremanetan!

www.kaixoireland.com

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

50 urtetik aurrera entzumen azterketaren bat urtero egitea gomendatzen dute adituek

Landako optikan entzumen azterketak egiteaz gainera, entzuten laguntzeko eta arazoak prebenitzeko gailuak eskaintzen dituzte



50 urtetik aurrera entzumena urtero aztertzea gomendatzen dute adituek. Izan ere, adin horretatik aurrera, artritisa eta hipertentsioaren ostean, osasun arazo ohikoena entzumenaren galera da. Hala ere, biztanleriaren %50ak ez du eze-lango azterketarik egiten.

Entzumena galtzeko bi faktore nagusiak adina eta zarataren aurrean gehiegizko esposizioa dira. Lourdes Arrizabalaga Landako optikako audioprotesistak dioenez, "diagnostikoa geroago eta beranduago egin, entzumenaren galera handiagoa da, eta zailagoa da prebenitzea eta egoera berrira moldatzea". Gogoratu duenez, entzumena apurka-apurka galtzen da. Gainera,

entzumen arazoak izateak pertsona asko isolatzea eragin dezake. Sarritan, arazoa duen pertsonak beharrezkoak diren ingurukoek sumatzen dute entzumenaren arazoren bat duela. Sintomak egunerokotasunean agertzen dira, eta, orokorrean, nahiko erraz detektatzen dira. Telebistaren bolumena altu jartzea, ozen berba egitea, esandako gauzak errepikatzea eskatzea eta, beste pertsona batzuekin daudenean, baxu berba egiten ari zaizkiela pentsatzea.

Entzumen azterketa

Azterketa egitean, entzumena sano dagoela ziurtatzeko frogak egiten dira, infekziorik ez dagoela egiaztatzen. Ondoren, entzu-



men-ataria zein den ezagutzeko frogak egiten dira (ortoskopia, audiometria tonala eta berbazko audiometria). Entzumen galeraren bat duen baloratzen dute, eta ea entzumenari laguntzeko gailuren bat beharrezkoa duen. Audiofonoak izaten dira erabilienak.

Entzuteko laguntza

Audiofonaen arloan, teknologiak aurrerapauso handiak eman ditu azken urteotan. Behinolako aparailu handietatik, belarrian jarri eta ia ikusi ere egiten ez diren audiofonoetarako jausia eman dute. Zarata dagoen lekuetan gehiegizko esposizioa dutenentzat, berriz, prebentziarako, zarataren aurkako tapoiak dituzte. Iragazki berezi batzuen bidez, entzumenarentzat kaltegarriak diren zaratak kentzen dizkiete, eta ahotsaren frekuentziak pasatzen uzten dituzte, lanean berba egin ahal izateko. Gainera, neurria egindako bainurako tapoiak ere badaude, infekzioak saihesteko; batez ere, igerilekuan.

Ordutegia

Astehenetik barikura:

09:30-13:00

16:30-20:00

Zapatuetan, goizez.

Helbidea

Juan Mari Altuna, 22
DURANGO

Kontaktua

Tel.: 946 814 999

landako.optika@gmail.com

f landakooptika

Landako optikak, ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Durangon, berritzailea da optometriaren esparruan. Ikasteko arazoan gainean ohartarazten du, eta gaitz horiek tratatzen ditu, ikusmen disfuntzioak aintzat hartuta.

GRADUZAZIOAK
BEGIEN AZTERKETA
UMEEN OPTOMETRIA
BEGIEN TERAPIA
UKIPEN LENTEAK
TONOMETRIAK
TOPOGRAFIK
IKUSMEN URRITASUNA
AUDIOLOGIA
OSASUN OKULARREAN
ESPEZIALISTAK



Gernikatik Durangora zuzenean, Zornotzako herrigunera sartu gabe

Bihar irekiko dute adar berria; egunero 1.500 ibilgailuk erabiliko dute

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako herrigunera sartu beharrik gabe, Busturialdea eta Durangaldea lotuko dituen ibilgailuentzako adar berria zapatuan irekiko dute. Egutero 1.500 ibilgailuk erabiliko dutela aurreikusi dute. Obrek 1.923.690 euroko inbertsioa izan dute.

Bihartik aurrera, Busturialdetik datozen ibilgailuak Berragane eremura bideratuko ditu biribilgune eta lotune berri batek. Inguru hartan dago N-635 eta N-634 errepidea lotzen di-

tuen adarra. “Zornotzarentzat ez ezik, Bizkai osoarentzat ere albiste ezin hobea da; eskualde bien arteko komunikazioa arinduko du”, adierazi zuen Herri Lan eta Garraio Saileko diputatua den Itziar Garamendik, azpiegiturara egindako bisitan.

Zornotzako alkate David Laxagaren esanetan, aspalditik desiatzen zuten azpiegitura da. Herritarrei “bizi kalitatea hobetuko” diela nabarmendu zuen, eta azken hamarkadan Zornotza herri antolaketa ikuspegitik

bizitzen dabilen eraldatze prozesuan lagungarri izango dela.

Autobusetan aldaketak

Busturialdetik Bilborantz doazen autobusen Zornotzako geltokiak berrantolatuko egin dituzte. Azpiegitura berrietik sartuko direnez, San Juan kalean eta San Pedro kalean (tren geralekuaren ondoan) geratuko dira. Karmen kaleko geltokian, aldiz, ez da geratuko. Horrela, herritar gehiagok izango dute geltokia gertu.



Ordezkarri politikoek, egunean, azpiegitura berrietara bisita egin zuten.

Automoziora emaniko AICren azpiegitura berria inauguratu dute

ZORNOTZA J.D.

Automotive Intelligence Center-ek 45.000 metro karratuko azpiegiturak ditu Boroako industriagunean, automozioaren inguruko jakintza, trebakuntza eta ikerketa sustatzeko. 8.000 metro karratuan automozioaren inguruko trebakuntzara bideratuta egongo den AIC Academy eraikina egokitu dute. Hirugarren faseko azpiegitura hori inauguratu zuten astelehenean. Lanak Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu ditu 15 milioi euroz.

Automozioaren gaur egungo beharrianak zein etorkizunekoak kontuan hartuta lan egingo dute. Era berean, jakinarazi zuten, azpiegitura berrietan Gestamp korporazioaren Trebakuntza Teknologikorako Zentro Globala eta Material Berrien Jakintzarako Zentroa egongo dira.

Horiekin batera, Austriako Megatech multinazionalak ere ikerkuntzarako eta garapenerako bere zentro nagusia Boroako azpiegitura berrietan kokatuko du.

Herriari bizia emateko, Gazte Eguna bihar

Txapelpunk eta Trikizio taldeek kontzertua joko dute

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako Gazteak bilguneak egun osoko egitaraua prestatu du bihar Gazte Eguna ospatzeko. Ametx Erakundearen laguntza izan dute antolaketan. Adin guztietarako jaia izango da, eta partaidetza helburu duen egitaraua osatu dute. Herriko gazteen topagune bihurtu gura du Gazte Egunak, eta herriari bizia eman gura diote ekitaldiak kalera aterata.

Eguerdia bitartean, gazte txoak izango dira protagonista. Zapatuan, 12:00etan, Zubiondo

parkean jolasak eta tailerrak antolatuko dituzte. 13:00etan, erraldioak irtengo dira Zelaie-ta parketik, eta herrian zehar ibiliko dira. Horregaz batera, joareak erabiltzen ikasteko ikastaroa ere egongo da.

Ondoren, 15:00etan, bazkarian batuko dira. Herriko trikitilariak alaituko dute bazkalostea. 18:00etan, Eonian elektroaragagaz batera ibiliko dira herriari zehar. Azkenik, 22:00etan, Txapelpunk eta Trikizio taldeen kontzertuak egongo dira Zubiondo parkeko karpan.



Zornotzako Gazteak bilgunearen familia argazkia.

Herritarren interesen arabera ikastaroak

Ikastaroen inguruko galdetegiak banatu dituzte

MAÑARIA Markel Onaindia

Mañariko Udalak hainbat ikastaro labor eskaintzeko asmoa dauka, eta herritarrei iritzia galdetu gura die, zein ikastaro eman jakiteko. Beraz, mañariaren interesen arabera ikastaroak antolatuko ditu udalak. Galdetegi batzuk banatu dituzte arduradunek, eta bertan bakoitzaren gustuko ikastaroak markatzeko eskatu diete herritarrei. Martxoaren 31 baino lehen itzuli beharko dira galdetegiak.

Nagusien atalean, honako zortzi gai hauek daude aukeran: sendabelarren erabilera, bal-koietako eta terrazetako ortuak, xaboi eta krema naturalak, gimnasia zuzentzailea, pelbis-zorua, barre terapia, sevillanak eta aurpegi margoketa.

Umeen kasuan, lau ikastaro posible daude: funkya, patina-jea, zirkua eta bertsolaritza.

Gainera, beste ideien bat daukanak galdetegian bertan egin ahalko du proposamena.

Doako azterketa medikoak egin ditzakete gimnasia taldeetako kideek

IZURTZA J.D.

Izurtzan mantentze gimnasia egiten duten talde bi daude: Erdoitzako Ama jubilatuen elkartekoa eta asteen bitan abade etxean batzen den herritar taldearena. Bi talde horietako kideek osasun azterketak dohai-

nik egiteko aukera izango dute apirilean. Bizkaiko Foru Aldundiko kirol medikuntza taldeko kideak Izurtzara etorriko dira apirilaren 27an, 28an, 29an eta 30ean. Azterketa hori egin ahal izateko nahikoa da arduradunei eskaera egitea.

Azterketa horien bidez, askotariko datu baliagarriak jaso daitezke: masa-muskularra eta gorputzeko ur kantitatea, adibidez. Horrela, gorputza zaindu eta ariketak hobetzeko ondorioak atera daitezke.

Chimeneas
Cerámicas MACOBER
Santitas

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA

Bidaia magikoa judoaren mundura



Gure oin-zolan dauden zentzumen-erzeptoreetan hasten da judoaren bidaia magikoa, horiek kirola garatzen den gainazal biguna lehenengoz ukitzen dutenean. Haurra bat-batean hasiko da jolasten, saltoka, itzulipurdika, taldeko gainontzekoekin harremanetan, oraindik ere naturan biziko bagina bezala.

Adimenaren, gorputzaren eta espirituaren garapena elkartzen zituen hezkuntza sistema gisa sortu zen judoa. Gure gizarterako kalitatezko pertsonak sortzea zuen helburu, horretarako, lan-kidetzatza, adiskidetasuna, borondatea, autodiziplina eta errespetua sustatuta; horrela iritsi da munduan gehien egiten den kirolaren bat izatera. Kirol honen onurak asko dira, eta, horregatik, umeak garatzen dabiltzan sasoiaren, judoa dela ekintzarik egokiena adierazi zuen Unescok.

Judoaren bidez, haurra bere gorputzaz eta gorputzak eskaintzen dizkion aukeraz jabetuko da. Bere garapenerako garrantzitsuak diren hainbat kontu landuko ditu: besteak beste, psikomotrizitatea, koordinazioa, oreka eta indarra. Hori guztia, gainera, haurraren beharretara egokitutako programa baten bitartez garatuko du, eta programa horretan hezkuntza-balioak oinarri-oinarrizkoak dira.

Gure irakaskuntza metodoa ikusmen bidezko erreminta batean oinarrituta dago, eta guk geuk garatu dugu Judomat izeneko tresna hori. Mundu mailan sistema aitzindaria da, eta judoa-

ren irakaskuntza eta ikasketa erraztea du helburu. Horretarako, koloreak erabiltzen ditugu, eta, horien bitartez, gorputzaren alde biak zehazten ditugu, horrela, alde biko lan orekatsua, jarra-zuzenketa garatzen laguntzen diguten sinboloak eta orientazio espazial batera garamatzaten norabideak lortzeko.

Ikerketa lan honi esker, Paris-ko Cercle Tissier-en eta Errusiako Tyumen zentro olimpikoan aurkeztu izan dugu proiektua.

15 egunez doan proba egin daiteke. Gainera, urte osoan matrikula egiteko aukera eskaintzen dugu

Eskola Kirola

Durango Judo Taldean oso argi dute haurraren mailakako ikaskuntzak, heltze prozesuko etapa bakoitzean bere garapen fisiko eta psikikora egokituta, hazkuntza pertsonalean lagunduko diola umeari. Horregatik banatzen dira adinaren arabera taldeetan; eredu horri jarraitzen diote Maristetako eskoletan, klubean eta Jesuitetako instalaziotan; azken horretan, proiektu berri bati ekin diote ikasturte honetan, judoa ikastetxean bertan ume-umetatik lantzeko.

5 eta 7 urteko tartean helbu-

rua da adinari dagozkion abilezia eta trebetasuna lantzea: lekualdatu, salto egin, korrika egin, lurretik arrastatu, erori eta abar. Lan honekin lortzen dena da umeek euren buruarengana-ko konfiantza eskuratzea. Teknika sinpleak erabilia, judoari ekitea, betiere jolasen bidez.

7 eta 9 urte bitartean, psikomotrizitate ariketak judoari dagozkion teknika zailagoekin nahasten hasten dira. Euren lagunekin lan egiten ikasten dute, garapen egoki bat lortzeko, bai taldeka, bai bakarka.

9 urterekin hasi eta 15 urtera arte haurrek judoari dagozkion kirol teknikak garatu ahalko dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Judo Federazioa dela tarteko, Eskola Kirolaren bitartez programatutako ekintzetan ere parte hartu ahalko dute.

Emakumezkoen kirola

Borroka kirol bat izanik, klubean emakumearen garapenera-ko dugun konpromisoa erabatekoa da, eta parekotasuna da taldearen oinarrietako bat.

Urteko egitarauan beti txertatzen dira, esaterako, honako hauek: tailer zehatzak, emakumeak kirol honetan duen ordezkari-za nabarmentzeko; kirolaren arloan emakumearen garapenera zuzendutako lan jardunaldiak; eta emakumezkoen lehiaketa taldea.

Inportanteena da klubeko neska gazteek emakumezko erreferenteak aurkitu ditzatela judoaren munduan; horrela, euren kirolean jarraitu dezaten eta nerabezaroan, hain garai zaila izanik, ez diezaioten kirola egiteari utzi.

Beste proiektu batzuk

Gurasoentzat ikastaroak antolatzen dira, kirol hau gerturatzeko. Adibidez, euren umeekin batera eskolak antolatzen ditugu, eta onarpen maila altua du; izan ere, familiarrekin harremanak indartzen ditu, elkarrekin fisikoki eragiteko leku bat eskaintzen duela-ko eta umeak kirolarekiko duen konpromisoa sendotzen duelako.

Zer ekarpen egiten die judoak gure umei?

Euren gorputza hobeto ezagutzea eta euren gaitasunei probetxu handiagoa ateratzea.

- **Autokonfiantza indartzea.**
- **Norberak bere burua kontrolatzea (bulkadak, emozioak, oldarkortasuna...).**
- **Arauekiko eta gainontzekoekiko errespetua.**
- **Adiskidetasuna.**
- **Arazaok indarkeriara jo gabe konpontzea.**
- **Babesten ikastea.**
- **Ohitura eta jokabide onak eskuratzea.**



*Hurbildu zaituz
eta dahainik proba ezazu*

DURANGOKO JUDO TALDEA

Tel.: 630 985 785 Monica / Tel.: 626 484 254 Iñaki

Juan Antonio Abasolo, 6 (Maristak ikastetxea)

www.durangojudo.com



Apirilaren 18an Euskaraz Bizi Eguna ospatuko dute egun osoko jaiagaz

Euskal Herrian Euskarazek herriko elkarteekin elkarlanean osatu du egitaraua



EHEko Nestor Esteban eta Koldo Zarate, Plateruenerako aurkezpen ekitaldian.

OTXANDIO Joseba Derteano Euskal Herrian Euskarazek (EHE) Otxandion antolatuko du aurtengo Euskaraz Bizi Eguna. Apirilaren 18an izango da, eta egun osoko egitaraua osatu dute Otxandioko herritarrekin eta elkarteekin auzolanean.

Iaz, Gasteizen antolatu zuten, eta, aurten, hiritik herrira ekarri gura izan dute: "Otxandio arnagune txikia eta babesgu-

nea handia da. Euskal Herri euskaldunaren ideia aldarrikatu gura dugu, eta Otxandio horren erakusleio da", adierazi du EHEko Nestor Estebanek. Horregaz batera, "euskararen alde egotetik euskararen alde egitera" igaro behar dela zabaldu gura dute.

Askotariko ekimenak antolatuko dituzte apirilaren 18rako. Goizean, mendi irteera egingo

dute Mirugain taldearen eskutik, eta, ondoren, Soinubilek eta txistulariek herrira zabalduko dute jai giroa. Gainera, gaztetxoei zuzendutako puzgarri, jolas eta tailerrak ere egongo dira gaztetxe parean, Kimuak aisialdi taldeak antolatuta.

Eguerdian, Urdax Magunazelaia harri-jasotzaileak erakustaldia eskainiko du. Ondoren, herri bazkarian batuko dira, pilotalekuan. Bazkalostea Gibelurdinak taldeak girotuko du, eta musika doinu horiekin egingo dute pilotalekutik herrigunerako kalejira ere. Plazan, Urduri dantza taldeak hartuko du lekukoa dantza saio batez. Otxandio, Euskal Herrian Euskarazek ekitaldia egingo du.

Iluntzean, musika izango da protagonista. Batukotx batukada eta kale animazio taldeak herrigunea girotuko du. Ondoren, Luhartz, Gozategi eta Governors taldeek kontzertuak eskainiko dituzte plazan atondutako karpan. Gaztetxean DJ Elepuntok ipiniko du musika.

Etxean da Egoitz Lopez da la Calle, fidantza ordaindu ostean

OTXANDIO J.D.

Madrilgo Navalcarnero herriko (Espainia) Madrid 4 espetxean egon da Egoitz Lopez de la Calle euskal preso. Iazko urtarriletik behin-behineko espetxealdian zegoen. Epaileak 20.000 euroko fidantza ezarri zion, eta, hura ordaindu ostean, eguazten arratsaldean irten zen kartzelatik, eta gauerdian heldu zen etxera. Lopez de la Callegaz batera, Asier Aranguren eta Jose Campos ere libre geratu dira, fidantza ordaindu eta gero. Hirurak iazko urtarrilean atxilotu zituzten Euskal Preso Politikoen Kolektiboko mintzaidetza taldearen aurkako operazioan. Orduko operazioan beste bost lagun ere atxilotu zituzten.

Eguazten arratsaldean irten zen kartzelatik, eta gauerdian heldu zen Otxandiora

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Bi argazki

Bi argazki ditut buruan. Bata, 2006. urtekoa, New Yorkeko MOMA museoa. Orduko Durangoko alkatea datorrit burura, eraikin modernista bat, eta bere alboan bost dorre erraldoi... Zer zen hori guztia? Durango omen zen, trena lurperatu ondoren ustez geratuko zen espazioa, eta hartuko omen zuen itxura: geltoki zaharra eta tailerrak bota, eta ETSren egoitza eta luxuzko etxebizitzak egiteko dorreak ziren.

Bigarren argazkia orain dela bi astekoa da, lehenengo argazkitik zortzi urte pasa diren honetakoa. Gaur egungo Durangoko alkatea agertzen da. Atzean tailer zaharrak agertzen dira, eta alboan makina-hondeatzailer bat.

Dirudienez, bere garaian saldutako proiektu megalomano hura, zortzi urte beranduago, tailer batzuen eraispen hutsean geratuko da. Momentuz. Momentuz diot, paperean behintzat, oraindik onartuta dagoelako adreiluaren mozkorraldian diseinatutako proiektu hura, eta batzuek ez dute betiko baztertu nahi. Adreiluaren burbuilaren garaietara itzuliko garaela uste dute...

Zortzi urte pasa dira, baina komunean gauza bi dituzte argazki biek: batetik, alkate jeltzalea; bestetik, bai lehen eta bai orain, durangarroi ez digutela galdetuko zer egingo genukeen Durangoko etorkizuneko garapen urbanistikoa planifikatzeko orduan, hartu behar dugun erabaki garrantzitsuenean.

Janire Alegria Mallabiko asto probetan garaile

MALLABIA Jone Guenetxea Mallabiko Pisu Neurtuko Asto Proben VIII. saria jokatu zuten joan zen asteburuan, udalak eta Txondor herri kirol elkarteak antolatuta. Janire Alegria izan zen norgehiagokan garaile, 65 untze eta hiru laurdenekin (4,40 m). Alegriak 390 euro, manta eta garaikurra eramane zituen etxera. Saillkapenean hurrengo Lobene izan zen, 63 untze eta hiru laurdenekin (3,20 m), eta 330 euro eta garaikurra eskuratu zituen. Hurrengo zortzi irabazleak ere sariagaz joan ziren etxera. Maiora (61 untze), Alegria (57 untze), Ugalde (55 untze

eta erdi), Karmelo 47 untze eta laurden, Egia (47 untze), Miren Olabarria (46 untze), Taberna Zaharra (45 untze), Irazola (45 untze), Zengotitagane (43 untze) eta Satxibar (42 untze) izan ziren saillkapenean hurrengoak.

Alegria lehenengo saillkatuak 360 euro, manta eta garaikurra eramane zituen etxea

Eskola eta aurrekontuak berbagai herri batzarretan

Arrazolan, Axpen eta Apatan egingo dituzte

ATXONDO J.D.

Atxondoko gobernu taldeak (Bildu) hiru herri batzar deitu ditu, datozen egunetan hainbat gairi buruzko azalpenak emateko eta herritarren iritziak entzuteko.

Lehenengo herri batzarra zapatu honetan izango da, 10:00etan, Arrazolako ludotekan. Bigarrena hurrengo egunean egingo dute; domekan, Axpeko udaletxe zaharrean batuko dira, 12:00etatik aurrera. Azkenik, astelehenen, 18:30ean, Apatako eskola-

ko gimnasioan emango dituzte azalpenak.

Batez ere, gai biren gainean jardungo dute herri batzarretan. Batetik, eskolako auziaren gaineko azalpenak ematea da asmoa; herritarrei gertatu dena aurrez aurre kontatu, eta zalan-tzak argitzea. Bestetik, aurrekontuen inguruan hitz egingo dute. Martxoaren 23ko udalbatzarrean aurtengo aurrekontu proposamena aurkeztuko dute, eta, aurretik, herritarrei azaldu gura diete, eta ekarpenak jaso nahi dituzte.

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

946 819 951

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

m o m o t x o
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

Beinke euskara taldea aurkeztuko dute sagardotegian, hilaren 21ean

Korrikaren inguruko egitarauaren barruan dago Astigarragarako irteera



Sagardotegira doazenek Astigarragan korrika egiteko aukera izango dute; Berrizera, martxoaren 23an helduko da, 15:15ean.

BERRIZ Amaia Ugalde Korrikaren inguruko ekintzen artean, martxoaren 21ean sagardotegira joateko irteera antolatu du Beinke euskara talde sortu berriak. Euskararen erabileran eragin guran, iazko urte amaieran hasi zen taldea batzen, eta sagardotegikoa izango da antolatzen duen lehen ekintza. Taldeko kideek irteera aprobetxatu gura dute berriztarrei taldea aurkezteko eta parte hartzeko gonbidapena egiteko.

Martxoaren 21ean, 09:30ean irtengo dira Astigarragarantz. Egun horretan, 11:00 aldera pasatuko da Korrika Astigarragatik, eta bertan parte hartzeko

aprobetxatuko dute sagardotegiko bisita. Eguna han pasatu ostean, 21:00etan hartuko dute autobusa Berrizera bueltatzeko.

Euskararen erabileran eragin guran, iazko urte amaieran hasi ziren Beinke taldea sortzen

Irteerara joateko, astelehenera arte eman daiteke izena Fondan eta Ama-Lurren. Autobusa eta bazkaria ordaintzeko 40 euro jarri beharko dira, eta

izena emateko unean, 20 euro aurreratzeko eskatu dute Beinkeko kideek.

Korrikaren harira, egitaraua Korrikaren inguruan, hainbat ekintza antolatu dituzte Berrizen. Datorren eguaztenean, martxoak 18, Korrika dela-eta sortutako dokumentala emango dute Kultur Etxean, 19:30ean.

Korrika hilaren 23an pasatuko da Berriztik, 15:15ean. Arineketan egin eta gero, jai giroan ibiliko dira 16:30etik aurrera: Pagotxa taldeak umeen jolasak antolatuko ditu, eta Erromeria.com taldearen emanaldia izango da, udalak antolatuta.

Apirilerako prestatu gura ditu herri ortuak Berrizko Udalak

BERRIZ A.U.

Laster hasiko dira Berrizen herri ortuetako lursailak atontzen eta bertako azpiegiturak prestatzen. Hasteko, 45 partzela prestatuko dituzte hilerri ondoko lursailetan, herritarrek nekazaritza ekologikoan jarduteko.

Lursailak mugatzeaz gainera, gauzak gordetzeko eta erabiltzaileak aldatzeko etxola eraikiko dute, eta urak hartzeko biltegia ere bai. Izan ere, euri urak erabiliko dituzte ortuetan, eta ur hori gordetzeko 7.500 litroko biltegia jartzekotan dira lur azpian. Obrak laster hasiko dituztela azaldu du Orland Isoird alkateak, eta apirilean eskariak egiteko baldintzak onartzeko asmoa dutela aurreratu du.

Soberakina: 964.000 euro Eguazteneko osoko bilkuran 2014ko aurrekontuen kitapena onartu zuten. Guztira, 964.000 euroko soberakina dauka Berrizko Udalak; 353.000 euro iaz amaitu bako jardunei dagokie. Soberakin horretatik 500.000 euro zer proiektutara bideratuko duten adostu dute. Ortuena da egitasmoetako bat, 56.000 euroko aurrekontuagaz. Gainera, probalekuko zorua konpontzeko, Sarriako bidean abiadura murrizteko moldaketak egiteko eta Andikoan txintaunak jartzeko asmoa du udalak.

> DURANGALDEA ASTEON

Udalekuak handitu ditu Kimuak-ek

IURRETA > Astelehenean ordu eta erdian bete ziren Kimuak-en udalekuak. 150 plaza zeuzkaten, baina 280 eskari egon direnez, udalekuak handitzea erabaki dute. Begirale, sukaldari eta koordinatzaileen lantaldea handitu beharko dutela azaldu dute, eta Kimuak Laguna kanpaina abiatuko dute udalekuei diruz laguntzeko.

Aste Santurako ludoteka Zelaietan

ZORNITZA > Aste Santurako ludoteka antolatu du Ametxe-ko Gazteria Sailak. Zelaieta zentroan izango da, eta 3-10 urte bitarteko umei zuzenduta egongo da. Plaza mugatuak dira, eta izen-ematearen ordenaren arabera banatuko dira. Gazte Informazio bulegoan eman ahaliko da izena martxoaren 18ra arte.

Manchesterreko gazteak, Jesuitetan

DURANGO > Ingalaterrako Storyhurts College-ko ikasleak Durangora etorri dira, Jesuitak ikastetxeko ikasleen etxeetara. Trukeko programan ingurumenari arreta berezia eskainiko diote: Ibaizabal ibaiaren uraren analisiak egin dituzte, eta, Bilbon, ur zikinak garraiatzeko Deustuko sifoi bisitatuko dute.



EH Bilduko kideak, eguaztenean, udaletxe aurrean.

EH Bildu, "aldaketarako ilusioagaz"

DURANGO M.O.

EH Bildu koalizioak agerraldia egin zuen eguaztenean, udalak egindako inkesta baloratzeko eta herritarrei bere proposamenen berri emateko. Gobernu aldaketa gertatzeko "ilusioz eta esperantzaz" berba egin zuten koalizioako Eider Uribe eta Ion

Andoni Del Amok. "EH Bilduk ordezkatzeko du aldaketarako ilusioa". Duela lau urtetik hona, Bilduk eta Aralarrek indarrak batzeko "ahalegin handia" egin dutela azaldu dute, eta horren fruituak segida izango duela.

EH Bilduk prozesu parte-hartzailea martxan dauka, eta martxoaren 28an hauteskundeetarako programaren zirriborro bat osatuko dute. Gero, auzoetan eta elkarteekin landuko dute.

Hiri Ekimena taldea aurkeztu dute Zornotzan

ZORNITZA J.D.

Hiri Ekimena hauteskunde taldeak Equo, Ezker Anitza eta Podemos alderdien onarpena du, aurkezpenean azaldu dutenez, baina erabakitzeko eskumena herri batzarrek izango dute. Enpleguaren sustapena eta garapen jasagarria dira osatzen



Hiri Ekimenaren parte diren zornotzarrek egin zuten aurkezpena.

dabiltzan programako ardatzetako batzuk. Hauteskundeetara aurkezteko 500 sinadura behar dituzte; domekan, 10:00etan, auresinadurak batzen egongo dira Txiki Otaegiko arkupeetan. Primarioak ere hasi dituzte hautagaitzak osatzeko. Martxoaren 23ra artekoa da hautagaitzak aurkezteko epea. Informazio osoa Facebook (Iniciativa Ciudadana Amorebieta) eta e-mail (*iniciativaciudadanaamorebieta@gmail.com*) bidez jaso daiteke.

Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Berbaz

Susana Del Amo eta Marlen Aranguren | Leuzemiaren kontrako 'Marea laranja'-ren sustatzaileak

“Durangon egiten gabiltzanagaz norbait hiltzea saihesten gabiltza”

Euren semeen kasuek bultzatuta, leuzemiaren kontrako borrokan dabiltzan amak dira Del Amo eta Aranguren



> BERBAZ Markel Onaindia Urteak atzera, Nevers ikastetxean ikasle eta irakasle zirela ezagutu zuten elkar Susana Del Amok eta Marlen Aranguren. Orain, leuzemiaren kontrako borrokak elkartu ditu berriro. Susanaren semea, Ekaitz, sei urteagaz hil zen, duela bost hilabete, eta Marlenek Alain semeagaz borrokan jarraitzen du. ‘Marea laranja’ izeneko mugimendua sortu zuten ikerketa bultzatzeko eta herritarrak emale bihurtzera animatzeko, eta domekarako maratoi solidarioa deitu dute Merkatu plazan. Elkarte eta herritar ugari lagunduko dute, Durangon eragin itzela eduki duen elkartasun olatuaren erakusle (jaialdiko egitaraua, ‘Agenda’ atalean).

Durango minbiziaren kontra sentsibilizatzen dabil, ezta?

M.A.: Askok. Gauza bat hurrekoa dela ikusten denean, jendeak dena ematen du. Durangarrek dagoeneko badakite kolore laranja leuzemiarena dela. Inguruko herrietako jendeak ere esan digu ea zergatik ez ditugun abisatu, eurek ere puzgarriak salduko zizutela eta!

S.D.A.: Nik uste dut horrek erakusten duela jendea sortzez ona dela. Jendeak era naturalean esan digu lagundu gura duela. Parte hartuko duten elkarte eta enpresek bazekiten euren izena ez zela inon agertuko. Argi geneukan hori, eta ez dugu inor behartu. Domekakoa mugarri bat izango da gure borrokan.

M.A.: Gaixotasuna bizi duten batzuek kanpotik deitu digute domekan badatozela esateko, eta horrek hunkitu egiten zaitu.

Ikastetxeetan ere zabaldu duzue ‘Marea laranja’; helburu argi batez, gainera.

S.D.A.: Helburuetako bat betetzen lagundu digute ikastetxeek: minbiziari buruz egin dute berba. Ekaitzek Neversen ikasi izana zorte handia izan zen, lan ona egin zuten eta. Ez zuen begirada arrarorik bizi; ikasgeletan minbiziaren berba egin zuten, eta normaltasunez bizi zuten gaia.

Kanpaina honegaz batuko duzuen dirua ikerketarako da.

S.D.A.: Maratoia hasi orduko, badaukagu helburutzat genuen dirua. Baina orain beste ikerketa proiektu bat hasi behar dute Gu-

rutzetan, Itziar Astigarraga onkologia arduradunaren eskutik. Kimioterapiaren ikerketarako zenbat diru sartu den eta proiektu berrian zenbat erabiliko den esango dute, eta gero emaitzak emango dituzte. Uste dut zertarako den jakiteak eragin duela jendeak parte hartu nahi izatea.

Gainera, hezur-muin emale bihurtzeko deia egingo duzue domekan, ezta?

M.A.: Bai. Izan ere, jendeak ez daki zer den, eta beldurra dio. Hezur-muina bizkarrezur-muinagaz nahasten da, eta galdetzen dute ea elbarri geratuko diren.

S.D.A.: Odol-emate bat da, denbora gehiagokoa. Etxanda egon beharko duzu apur batean, eta asko jota burdina emango dizute denbora batean hartzeko. Baina ez dizu fisikoki ezer suposatzen, eta aste bitan orekatzen da zure gorputza.

Emale batek gaixorik dagoen norbait salbatu dezake. Informatzeak balio itzela dauka, beraz.

S.D.A.: Ekaitzen kasuagatik emale izatera animatu ziren bi ezagutzen ditut, orain emale iza-

teko deitu dituztenak. Ea beste pertsona batzuei aukera gehiago eman ahal diegun! Durangon egiten gabiltzanagaz norbait hiltzea saihesten gabiltza. Domekan, hitzaldiak ematera etorriko dira Gurutzetako eta Basurtuko transplante arloko arduradunak, 11:00etan eta 17:00etan.

Baina transplanteak ere ez du bizia %100ean bermatzen...

S.D.A.: Orokorrean, transplanteen ondoren hiru egoera posible daude: osatzea, gaixoa kroniko bihurtzea, edo txarrera egin eta ezer egiterik ez izatea. Baina jokatuko besterik ez duzu. Hau errusiar erruleta bat da, eta jokatzen ez baduzu, leuzemiak hil egingo zaitu.

Une zailak bizi dituzue, baina domekan jaia dator...

S.D.A.: Ekaitz ez zen triste bizi, eta ez dut nahi tristea den ezer egiterik gure umearen aitzakian. **M.A.:** Egongo ez direnen omenez puzgarriak aiereratuko ditugu, baina maratoia jai girokoa izango da.

Zelan bizi du ama batek semea leuzemiaz gaixotzea?

M.A.: Nik neukan sentsazioa zen ez zitzaidala tokatuko. Ni ikusle nintzen, eta bat-batean filmeko protagonista bihurtu nintzen. Gaixotasuna existitzen da, eta horri aurre egin behar diozu. Leuzemiarena egun batetik besterako zerbait da. Odol analisi bat da, eta ordu bian esaten dizute. Nire semea parrandan egon zen aurreko egunean, etxe aldaketa bat egin berri zegoen... Eta esaten duzu: zelan da posible? Gero, 100 egun pasatzen dituzu Galdakaon; bost aste isolatuta transplanteagatik; astero analisiak egiten; eboluzioa ikusten... Guztia zure arazo eta beldurrekin batera. Horregaz bizi behar duzu.

S.D.A.: Baina zer egin dezakezu? Bizitzeko modu bakarra daukazu, egunekoa bizitzea. *Gaur eta bizi*; bihar ez dakigu zer gertatuko den. Ezin duzu pentsatu umea hil egingo zaizunik. Kontziente zara zer gudutan zauden, baina ezin duzu denbora galdu. Gaur jan egin badu edo lagunekin jolastu bada, disfrutatu egiten duzu. “Ama, Nolotila emadazu jolasten jarraitzeko, baina etxera ez, e!”, esaten zidan Ekaitzek. Azkenetan, oxigeno botila batez ibiltzen zen, eta, jolastean, geratu behar izaten zuen, oxigenoa hartzeko. Banekien hil egingo zela, eta ezin nion poztasun hori kendu. Bestalde, animalia senagaz bizitzen da amatasuna. Lehoi batek badaki harrapari batek bere kumea hil diezaiokeela. Ama batek, oster, normalean ez du pentsatzen bere umea hilko denik; naturaren kontrakoa da. Trintxeretan gauden gurasoak gara: amatasuna eta aitatasuna beste era batera bizi ditugu.

Bost hilabete ere ez dira Ekaitz joan zitzaizuenetik.

S.D.A.: Ez duzu ahazten, eta pena ematen dizu. Egoera gogorra eta samina onartuta ere, umearen heriotza hunkigarria izan ahal da. Beragaz zaude, eta itzel jokatu duela esan ahal diozu, lasai joateko. Bizitzan gehien maite duzuna, zuk erditu duzuna, agurtzen zabilza.

Leuzemiaren aurkako borroka elkartuta, Marlenen borrokan, laguntzaile da Susana.

M.A.: Horregatik esaten dut Susana nire irakasle eta erreferentzia dela orain. Izan ere, mediku batek esaten ez dizun hori esaten dizu ama batek. Garrantzitsua da zure egoera bera pasatzen dabilen jendeagaz elkartzea. Gerrerara joan direnek esaten duten moduan, guk ere badakigu zer den gerra, eta hizkuntza berbera darabilgu.

Ehun partaide izango dira biharko emanaldian, Durangaldeko 60. Txistulari Egunaren harira

Durangoko Andra Mariko elizpean egingo dute urteurrena gogoratzeko emanaldi nagusia, bihar



1962. urtean, Durangon antolatu zuten txistulari eguneko irudia.

> MUSIKA Itsaso Esteban Durangaldeko Txistulari Eguna antolatu duten 60. aldian da asteburu honetako. Urteurren biribila denez gero, egun bakar-rerako barik, gaur, bihar eta

etziko ere ekintzak antolatu ditu Durangoko Jaizale txistulari elkarteak. Baimenik eman ez zitelako, 1971. eta 1978. urteetan izan ezik, azken hamarkadetan hutsik egin barik antolatu dute

Durangaldeko Txistulari Eguna, San Jose egunean.

Bihar, Andra Mariko elizpean egingo dute urtemuga oroitze ekitaldi nagusia. Fernando Urainen eta Eleder Iturrie-

taren zuzendaritzapean, ehun partaide ariko dira 13:00etan hasiko den kontzertu horretan: txistulariek, Durangoko Orfeoiko abeslariak, metalek, dultzaineroek, albokariak eta panderojotzaileek ipiniko dute musika. Gainera, dantzariak ere hartuko dute emanaldian parte.

Hamaika kantuko erreperitorioa aukeratu dute biharko emanaldira bertaratzen direnei eskaintzeko: besteak beste, *Durangoko alkate soinua*, *Dantzari-dantza*, *Martxa baten lehen notak*, *Bizkaia maite*, *Herri maite* eta *Kaixo Durango* kantak eskainiko dituzte. Bestalde, kontzertu horretan Amaia Aroma txistulari durangarra omenduko dute. Euskal Herriko emakume txistulari aitzindaria izatea eskertuko diote.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jaia amaitzeko, Xabier Etxeitak eta Miriam Uriak Durangaldeko erregelak dantzatuko dituzte Karmelo Barrueta-beña txistulariaren doinuekin, elizpean bertan.

Gaur, 19:00etan hasiko dituzte asteburuko ekitaldiak, kalejira bategaz, eta Arozena anaiek Arozenatarren Ttuntuna txistu, perkusio eta gitarra kontzertua eskainiko dute, 20:00etan, Kurutzesantu Museoa.

MARTXOAREN 13an

19:00 Kalejira

20:00 Arozenatarren Ttuntuna

MARTXOAREN 14an

Egun guztian, argazki zaharren erakusketa, Andra Maria elizpean

MARTXOAREN 15ean

Egun guztian, argazki zaharren erakusketa.

09:30 Kalejira

13:00 Kontzertua

Amaia Aroma | Txistularia | Durango, 1936

“Hasi nintzenean, neu nintzen emakume txistulari bakarra”

Bihar, Durangaldeko txistularien omenaldia jasoko du Amaia Aromak

Asteburu honetako jaia berezia izango da zuretzat, ezta? Niri oraindik ez didate esan zer izango den, ez dakit ezer...

Urte askoan hartu duzu Durangaldeko Txistulari Egunean parte, ezta?

Bai, urte askoan hartu izan dut Txistulari Egunean parte, baina duela urte batzuk utzi nion joateari. Sasoi batean, Durangaldekotik aparte, Bilbokora ere joaten nintzen.

Bilbon, txistua jendaurrean jotzen agertu zen lehenengo emakume izan zinen.

Bai, horrela izan zen. Parte hartzeko saiakera egin nuen lehenengo aldiaren ez zidaten utzi, baina ahizpak lagundu zidan emakumeek parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen: antolatzaileei gutuna bidali zien berdintasuna eskatzeko. Azkenean onartu ninduten. Duela 50 urte inguru izan zen hori. Ehundik gora gizonetako txistulariaren artean jo nuen. Emakume bakarra neu. Bilbo-

ko kaleetatik desfilatu, eta, ostean, Areatzan jo genuen. Han egon ziren nire ahizpak txalo eta txalo!

Familiakoen sostengua eduki duzu, beraz.

Bai; zelanbait, lehenegusina izan zen txistua jotzen ikastera bultzatu ninduen. Nik ikasi nuen lehenengo, eta neuk erakutsita hasi zen Juan Antonio neba ere txistua jotzen.

Zu gaztea zinenean, tradizio handia zegoen Durangon txisturako?

Ez nuke hori esango. 18 urte gaz txistua jotzen hasi nintzenean, emakume bakarra nintzen, baina gizonak ere ez zeuden asko: txistulari bi zeuden Durangon. Hain justu, euretako batek, *Itzela* ezizenez ezagutzen zenak, irakatsi zidan niri.

Zerk bultzatu zintuen txistua jotzen ikastera?

Andra Maria elizan Garbi Alaiak dantza taldea geneukan, baina txistularirik ez. Duran-

goko txistulariek ez zeukaten dantza taldeekin jotzeko astirik. Solfeoa eta pianoa ikasiak nituen, txistua jotzen ikastera proposatu zidaten. Izan ere, sasoi hartan ez zen batere ohikoa solfeo ikasketak izatea. Taldearentzat dantzarako musika jotzen ibili nintzen urte askoan. Baina, bestalde, kontzertuetan ere parte hartu izan dut.

Asko ateratzen zineten dantza taldeagaz hortik zehar?

Bai. Debako euskal jaiak ditut gogoan batez ere. Gogoratzen dut, noizbehinka, agintariakin arazoak izaten genituela: behin, gobernadorea zetorrela-eta, emanaldi bat eskaintzea eskatu ziguten. Ezet esan genuen, eta Andra Marian entseguak egitea galarazi ziguten. Bota gintuztela jakin zuenean, San Frantziskon entseatzea eskaini zigun hango kapilauak.

Txistu tradizioa galtzeko beldurrik izan duzue inoiz?

Ez. Duela urte batzuk udalerrri guztiek edukitzen zuten txistu-



Txistu irakasle izandakoa da Aroma.

laria, udaleko agintariak karlistak zein frankistak izan; prozesioetan-eta ateratzeko edukitzen zuten txistularia inguruko udalerrri guztiek.

Txistu irakasle ere ibili zara.

Bai, zortzi-hamar ikasle eduki ditut urteotan. Egia esan, hasi bai, baina jarraitu gutxi egi-

ten zuten... Desberdina da gaur egun: Durangon txistu ikasketara arautuak egiteko aukera ere badaukate gazteek, eta oso pozgarria da hori.

Jarraitzen duzu jotzen?

Denbora da jotzen ez dudala. Etxean dauzkate hiru txistu, baina galdu egin dut ohitura.

Martitzenetik, abian da bertsolari gazteen Bizkaiko BBK sariketa

Durangon jokatuko dute, martxoaren 17an, hirugarren kanporaketa saioa

> BERTSOLARITZA I. Esteban Pasa den martitzeneko Igorreko Lasarte aretoko saioagaz eman diote hasiera Bizkaiko bertsolariaren BBK sariketaren XXIII. edizioari. Arratia-Txorierrri eta

Uribe Kosta izan dira lehenengo bi kanporaketetan garaile.

Bizkaiko zazpi eskualdeetako 50 bertsolari gazte inguruk parte hartuko dute sariketan; tartean, Durangaldeko taldea

osatu duten bertsolariak. Parte hartuko duen talde bakoitzak, gutxienez, sei kide izango ditu, eta Arratia-Txorierrri, Bilboaldea, Busturialdea, Uribe Kosta, Enkarterria, Durangaldea eta



Astlehenean, Bilbon egin zuten sariketaren XXIII. edizioaren aurkezpena.

Emakumeek sorturiko 'booktrailer'-ak ikusgai

Zornotzako Zelaieta zentroan aurkeztuko dituzte

> ZINEMA

Zornotzako Udalak antolatutako ikastaro batean emakumeek sortutako *booktrailer* lanen emanaldia egingo dute gaur, Zelaieta zentroko auditoriumean, 19:30ean hasita. Lara Izagirre

zinema zuzendariaren laguntzagaz sortu dituzte parte-hartzaileek literatura eta zinema uztartzen dituzten sorkuntzak: emakumeen literatura lanak ikus-entzunezkoen bitartez zabaltzeko helburuagaz.



Emakumeen literatura eta ikus-entzunezkoak uztartu dituzte ikastaroan.

San Juanek zuzenduriko 'Ruz-Bárcenas', Elorrion

Martxoaren 20an, Arriolan eskainiko dute obra

> ANTZERKIA

Alberto San Juan aktore madrildarrak zuzenduriko antzezlan da, martxoaren 20an, Elorrioko Arriolan ikusgai izango den *Ruz-Bárcenas*. Jordi Casanovasek idatzirik testuan oinarriturik dago. Iazko maiatzean, Madrilgo Lavapies auzoko Teatro de Barrio antzokian estreinatu zuten obra.

Luis Bárcenas PPko diruzain ohiak Ruz epailearen aurrean izandako bigarren galdeketa du oinarri antzezlanak: 2013. urteko uztailearen 15eko Auzitegi Nazionaleko sesioan ardazturikoa da gidoia; epaiketaren horretako gertakizunen dramatizazioa da antzezlanekoa. Antzerki-dokumental generokoa da obra: epaiketaren trans-

Lea-Artibai ordezkatuko dituzte eskualdeka jokatzeko.

Martxoaren 17an, Durangoko Frai Juan Zumarraga institutu-tuan jokatuko dute, 12:00etan, sariketako hirugarren eta azken sailkapen saioa. Busturialdeko eta Durangaldeko bertsolariak ariko dira saio horretan.

Ohi bezala, bi adin mailatan banatu dituzte parte-hartzaileak: 18 urte artekoak, alde batetik, eta 18 eta 24 urte artekoak, bestetik. Azken urteetan bezala, bestalde, Bilboko Kafe Antzokian jokatuko dute finala: martxoaren 26an izango da saio hori.

Bizkaiko zazpi eskualdeetako 50 bertsolari gazte inguru ariko dira sariketan

Bertsolari gazteen sariketako txapela janzten duen taldeak 1.260 euroko saria jasoko du; 900 eurokoa bigarrenak; eta 140 eurokoa bizkaierarik onena erabiltzen duen bertsolariak.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Barbaroko kidea



Erdahalduntzen

Neguaren gordinena iritsi baino lehenago, iritzi interesgarria irakurri nion Pako Aristiri. Preso politikoen gaiak ziharduen, urtero Bilbon egiten den manifestazio handiaren harira. Zalantza agertzen zuen manifestazioen eredu zaharkituaz, mediatizazioaz eta eraginaz. "Etsairi gure beharrak agertzeko modu anti-estrategiko bat" ez ote den galdetzen zuen. Helburuak lortzeari begira ere ekimen ahula omen, eta hain ozen aldarrikatu barik, isil eta etengabeko ekin ezkutuagoa izatea proposatzen zuen. Ez dira alderagarriak presoek korapiloa eta euskararena, baina eman zidan zer pentsa, erantzun zaileko galdera nahaspila buruan.

Euskararen aldeko manifestazio handi bat dugu ate joka. 1980an egin zen lehena *Zuk ere esan bai euskarari* lelopean. 35 urte igaro ditugu arineketan, geldo-geldo, hizkuntzaren gaia lasai hartu behar delakoan. Hobe urrats txiki sendoak, handi ahulak baino esaten genuen. Bide eta errepide luzeak busti ditugu, geldo-geldo, oinez, korrika...

Urte asko daroagu aldarrikapen, azterketa, mintegi, plan estrategiko, lankidetzeta eta ez dakit zenbat erakustaldi egiten euskararen egoera hobetzeko aitzakian. Lan eskerga egin dugu, kilokaloria eta neurona mordoa erre ditugu. Baina ni, *Marmotaren eguna* filmeko protagonistaren antzera, egunero esnatzen nau musika berberak. Kalera irten eta sentipen mikatzak asaldatzen nau euskararen denbora izoztu delakoan, erdahalduntzen ari garelakoan. Inbidia diet elebkarrei, ez dute jabetze prozesurik behar, ezta hautatu beharrik ere. Erdal hiztunak ahaldun dira, gu, euskaldun elebidunok, menpean izateko eta menpean irauarazteko, estrategia barik.

Beste musika baten esperoan jaikiko naiz bihar, zapatilak eta petoa prest.

San Agustin KULTUR GINEA

El hombre almohada
Un thriller de Martin McDonagh
II Maquinario Teatro
Martxoaren 15ean 19:00etan

antzerkia + elkarrizketa

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Londako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK OSTIRALERA

MARTXOAK 13/14 60€ / 35€ EUSKAL ASSAULT

MARTXOAK 19 20:30ean 0,5€ DURANGO'S PUB QUIZ

MARTXOAK 20 22:30ean 8€ / 0€ PETTI + MURSEGO MUSIKA KONZERTUA

· *Etorri ikustera* ·



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Iurretan, Durangon eta Elorriren aukera oso onak!



Durango herrigunean



Energia-eraginkortasun handiko etxebizitzak



Hiriko traketak



Oiz mendira begiratukoak



Lekuzahakak

www.zarateyelexpe.com

Bizente Kapanaga, 13

Iurretan - Biskala

946 916 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak S.L.

Kultura digitalaren gogoetarako plaza, Platerueneko Zilar Astea

Martxoaren 23tik 27ra arte garatuko dituzte, aurten, Zilar Asteko ekintzak



Iaz 'arte' gaiaren inguruan ardaztu zuten Zilar Astea.

> ZILAR ASTEA Itsaso Esteban Kultura digitala gaitzat hartuta egingo dute, datorren astean, seigarren Zilar Astea, Durangoko Plateruenean. Sorkuntza digitalaren inguruan ardaztuko dute aurtengoa; euskal kulturak arlo digitalean daukan presentzia izango da gaia. Ohi bezala, askotariko proposamenak luzatuko dituzte gai horren inguruan jarduteko. Gainera, Zilar Asteak irauten duen bitartean,

martxoaren 23tik 27ra, euskal kulturaren digitalizazioaren inguruko erakusketa egongo da Plateruenean. Mahai inguruak entzuteko eta ekarpenak egiteko ere izango da aukerarik.

Durangaldean, komunikazioaren eta kulturaren arloan diharduten Nagore Txintxurreta, Libe Mimenza, Maider Larrañaga eta Ekaitz Goienezteagaz mahai inguru antolatu dute, esaterako, martxoaren

25erako. Plateruenean, 19:00etan hasiko da *Mahai-inguru posmoderno/ Open space* izenburuko saio hori.

Iazko Zilar Asteko tailerrek ikasleen artean izan zuten erantzuna aintzat hartuta, aurten ere prestatu dituzte gazteentzako tailerrak. Digitalaren garaian hazitako eta hezitako batxilergoko 150 ikaslegaz tailerrak egingo dituzte martxoaren 26an eta 27an, Plateruenean.

Uztargi.Klik elkarteko argazkiak, erakusketan

Apirilaren 7ra arte, Zornotzako Zelaieta zentroan egongo dira argazkizale elkarteko 28 lan ikusgai

> ARGAZKIGINTZA

Martitzen honetan egin dute Zornotzako Zelaieta zentroko argazki erakusketaren inaugurazio ekitaldia, eta, apirilaren 7ra arte, kulturagune horretan egongo dira Uztargi.Klik argazkizale elkarteko kideek egindako hainbat argazki ikusgai.

Duela urtebete sortu zuten Uztargi.Klik elkarte, herriko gazte zein helduen artean argazkilaritzaren mundua ezagutzeko eta bultzatzeko asmoz. Elkarte sortu zutenetik taldekideek egindako lanaren 28 argazkiko lagina da Zelaieta zentroko erakusketa aretoan bildu dutena. Gainera, Pedro Bilbao zornotzarrak erakusketarako utzitako 20 argazki kamera eta argazkigintzako bestelako hainbat tresna bitxi ere ipini dituzte Zelaieta zentroan ikusgai.

Hogei bazkide inguruk osatzen dute gaur egun Uztargi.Klik elkarte. Elkarteko kide bakoitzak egindako argazkiak elkarri erakutsi, eta bakoitza-

ren sorkuntza aztertze baten dira astero elkarteko argazkizaleak: norbere argazkiaren gaineko azalpenak ematen dituzte egile bakoitzak, eta taldekideen ekarpenak jasotzen dituzte.

Elkarteagaz bat egin edo elkartekideekin harremanetan jarri gura dutenek honako helbide elektronikoa hainbat tresna bitxi ere ipini dituzte Zelaieta zentroan ikusgai. Hogei bazkide inguruk osatzen dute gaur egun Uztargi.Klik elkarte. Elkarteko kide bakoitzak egindako argazkiak elkarri erakutsi, eta bakoitza-



Erakusketako argazkietako bat.

ZILAR ASTEA 015

KULTURA DIGITALEAN

Martxoak 23-27
ERAKUSKETA DIGITALA
Euskal Herriko sorkuntza eta kolektiboan sormen digitalak sarean.
Egunero 11:00-13:00 eta 16:30-18:30.

Martxoak 25, eguzia
KI SAREAN: MAHAI-INGURU POSTMODERNOA/ OPEN SPACE
Kultura, komunikazio (komunikabideak) eta Gizarte Sarean.
Gonbidatuak: KU: Nagore Txintxurreta (sorkuntza); KO: Libe Mimenza eta Ekaitz Goienezte (komunikazio aditua); eta GI: Maider Larrañaga (San Agustín Kulturagunea) eta Dendak Bai.
19:00etan, Plateruenean.

Martxoak 26, eguna
KULTURA DIGITALEAN SORTZEN!
Durangoko batxilergo bi hezkuntza zentroko 150 ikasleentzako. 10:00etatik 12:00etara Plateruenean.

Martxoak 27, barikua
KULTURA DIGITALEAN SORTZEN!
Durangoko batxilergo bi hezkuntza zentroko 150 ikasleentzako. 10:00etatik 12:00etara Plateruenean.

Martxoak 27, barikua
INPRENTATIK/TINTATIK ORDENAGAILURABITERA
E-RAKURLEAK proiektu berritzailearen inguruko BERBALDIA.
Gonbidatuak: Euskal Idazleen Elkarteko Goizak Landibar; Donostia Liburutegi Zerbitzuko arduraduna; Xabier Aranguena (Durangoko udal bibliotekako Zuzendaria). 19:00etan, Plateruenean.

Antxon Iriondo | Durango, 1994 | DRTko errugbi jokalaria

“Aldaketa handiena buruan egon da, orain gar eta gogo gehiago jartzen dugu”

Durango Rugby Taldeko Antxon Iriondok taldearen denboraldi onaren gakoak eman ditu



Jon Iglesias

> ERRUGBIA Eneko Azurmendi Durango Rugby Taldearen gaurkotasuna eta etorkizuna batzen ditu Antxon Iriondok. Aurten errendimendu handia eskaintzen dabil, baina oraindik ikasten dabilela dio. Talde-lana azpimarratu du, eta Ines Etxegibelentzat laudorioak besterik ez ditu. Azken batean, emaitzak begi bistakoak dira, eta igoera fasea eskura du taldeak: “la 30 urtean ez ditugu lortu aurten lortzen gabiltzan emaitzak”.

Zenbat denbora daramazu errugbian jokatzen?

Orain dela hamaika bat urte hasi nintzen jokatzen. Txikitatik multikiroletan ibili izan naiz, eta bertan errugbia egiten nuen. Gure adineko bi pertsona bakarrik geunden, baina jokatzen genuen zerbait. Errugbi eskolan ere ibili nintzen 15 urtera arte. Gero, bi urte eman nituen gazte mailan, eta talde honetan sartu nintzen.

Ligan entsegu gehien egin dituen jokalaria zara (hamasei). Zer dohain behar dira?

Horretarako ez dago trukorik. Ez da zerbait estrategikoa, ezta

zorizkoa ere. Guztion ahalegin bat da, eta ez da nigan bakarrik islatzen. Nire taldekide den Dimitrik ere entsegu asko [11] egin ditu. Nik egin ditudan entseguak ez dira garrantzitsuak, partidu bakoitzean taldekide guztien artean ahalik eta gehien lortzea da helburua.

Aurtengo talde-lana benetan eraginkorra da.

Bai, taldea oso ondo funtzionatzen dabil, eta, era berean, asko ikasten. Entrenatzaile berriak asko irakasten digu. Ia 30 urtean ez ditugu lortu aurten lortzen gabiltzan emaitzak.

Jokoan koska bat igo duzu aurten? Zure ibilbideko momenturik onenean zaude?

Gero eta hobeto egiten ditut, asko ikasten nabil eta horrek balio du. Ez nuke jakingo esaten nire momenturik onenean nagoen.

Ohorezko Mailarako igoera fasera sailkatzeko aukera handiak dituzue. Hiru partiduan lau puntu lortu behar.

Gelditzen diren hiru partiduak oso zailak direla esan behar da. Lehenengotik hasita, Uribealde

taldeak iaz mailaz igotzeko promozioa jokatu zuen, eta asteburu honetan talde horren aurka jokatuko dugu. Iaz bi partiduak galdu genituen. Bestalde, elurragatik atzeratuta daukagun partidua, Burgosen aurka, ez dakit zelakoa izango den. Ez dugu Burgosen sekula jokatu. Eta, azkenik, Zarautz. Igotzeko aukera guztiak baliatu nahi ditugu, esperientzia ikaragarria izango litzateke Ohorezko Mailan jokatzea, eta hori lortzeko daukagun guztia emango dugu.

“**Ines Etxegibelek ematen digun ‘egurra’ ez digute inoiz eman”**

“**Etxegibelek dio berreskuratutako baloietan daudela entsegu gehienak”**

Taldeak barrutik zelan bizi du aurtengo denboraldi ona?

Taldeko giroa beti bera izan da. Azken finean, lagun kuadrilla bat gara, eta errugbia bikain uztartzen dugu gure lagun giroagaz. Hala ere, esango nuke antzematen dela taldeak ilusio handiagaz entrenatzen duela, entrenamendu guztietara motibatuta gatozela.

Ines Etxegibelek taldearen ardura hartu duenetik, bikain zabilzate. Zer eskaini dio taldeari hain ondo ibiltzeko?

Gehienbat jarrera. Berak ematen digun *egurra* ez digute inoiz eman. Gauza bat eskatzen digunean, ez du etsiko hori lortu arte. Entrenatzaile bikaina da, eta emaitzak hor daude. Partiduz partidu joatea gustatzen zaio; aurreko partidua ahaztuta dago, eta orain hurrengoari egin behar diogu aurre.

Atzera begira jarrita, aurreko urteetan zer falta izan zitzaien hobeto ibiltzeko?

Beti jokatu izan dugu errugbian, baina inoiz ez dugu sinistu benetan helburu jakin batzuk lortu ditzakegula. Bi jokalaria etorri

dira, baina funtsean aurreko urteetako talde bera da. Aldaketa handiena buruan egon da. Gakoa da orain gar eta gogo gehiago jartzen dugula.

Etxegibelek dio zuen jokamoldea dela aurreko lerroak asko presionatzea, ondoren atzeko lerroak baloia azkar mugitzeko modua izan dezan.

Lehenengo asteetan defentsa besterik ez genuen landu, ondo defenditzen irakatsi digu Inesek, eta defentsa batetik baloia zelan irabazi. Berak dio berreskuratutako baloietan daudela entsegu gehienak, eta hori izan da gakoa, aurreko urteetan ez duguna eduki. Erabat ados nago, alde horri dagokionez, entrenatzaileak hartu duen erabakiagaz.

“**Esango nuke antzematen dela taldeak ilusio handiagaz entrenatzen duela”**

DRT harrobiko jokalariz hornitzen da, batez ere. Eta jokalariz gazteek esperientzia hartu behar dute. Zelakoa izaten da da prozesu hori DRTn?

Azkenengo bi urteetan Euskal Herriko Errugbi Txapelketa jokatu dugu, eta aurten segur aski Durangon izango da. Gazte mailatik datozenek gugaz jokatzen dute txapelketa hori. Bertan, elkar ezagutzeko aukera izaten dugu. Hala ere, guztiok ezagutzen dugu elkar, eta dena bertan geratzen da.

Nola osatzen da Euskal Herriko Txapelketa hori?

Urtero egiten dugu. Euskal Herriko probintzia bakoitzetik ordezkari batek hartzen du parte, eta herri antolatzaileko taldeak ere bai. Hori denboraldi amaieran izaten da, baina ez da txapelketa garrantzitsu bat, lagunarteko giroa egoten da. Iaz Baigorri izan zen, eta orain dela urte bi Baztanen.

Aita DRTko presidentea duzu. Beti aholkuak ematen dabilen horietakoa da?

Presidentea da, bai. Baina ez du inoiz errugbian jokatu, beraz, ezin dit aholku gehiegirik eman. [Barrez]. Nire anaiak ere errugbian jokatzen du, eta datorren urtean gure taldera igoko da. Hortaz, argi dago etxeko elkarriketetan gai nagusia errugbia izaten dela.

Zornotzako Urgozo Errugbi Taldeak arrakastagaz hasi du bidea

Zornotzako errugbi taldera 25 jokalaria batu dira dagoeneko



Errugbi taldeko jokalarien familia argazkia, Jauregibarria inguruko landetan.

> ERRUGBIA Joseba Derteano. Lau errugbizalek Zornotzako Urgozo Errugbi Taldea sortu dute. Apurka herrian errugbiari atea irekitzeko helburuagaz hasi dira, baina denbora gutxian espero ez zuten arrakasta lortu dute; dagoeneko 25 jokalaria batu dituzte, ia guztiak Zornotzakoak: “Herri osoan hiru katu ginela uste nuen, eta ezusteko handia hartu dugu. Nik uste zuena baino zaletasun handiagoa dago. Sinetsi ezinik

gabiltza”, dio Aitor Bilbao taldeko presidenteordeak. Bilbaogaz batera Ander Hernández presidenteak, Christian del Castillo idazkariak eta Unai Zugazaga zuzendaritzako kideak osatzen dute taldearen egitura; laurak zornotzarrak dira.

Igorreko errugbi taldean jokatzeari utzi ziotenean erabaki zuten Zornotzako talde bat sortzea. Pausoz pauso taldea sortzea, 2015a entrenamenduetara bideratzea eta taldearen ibilbide

ofizialari 2016an ekitea zen asmoa. Baina epe horiek hankaz gora jarri ditu denbora gutxian izan duten arrakastak. Herrian bazegoen zaletasuna, baina horiei aukera bat eskainiko zien taldea falta zen. Orain, urrian hasi gura dute lehenengo liga.

Zeanuriko eta Abadiñoako jokalaria bana kenduta, gainerako guztiak zornotzarrak dira. Gainera, sei-zazpi ez beste guztiak aurretik errugbian ibili gabeak dira. Beraz, Gorka Garate entre-

natzaile zornotzarrak lan handia du aurretik. Oraingoan, “oso giro ona” daukagu entrenamenduetan, Bilbaoren esanetan. “Gorkak badaki taldea eramaten, eta denok gozoz gabiltza”.

Jauregibarriako landak
Oraindik ez dute entrenamenduetarako tokirik. Euren erabakiz hasi ziren Jauregibarriako landetan, eta hantxe entrenatzen dute martitzen eta eguenean, 18:30etik aurrera. Udalaren kirol zelaietan ez dute tarterik;

A. Bilbao: “Herri osoan hiru katu ginela uste nuen, eta ezusteko handia hartu dugu”

ordu guztiak beteta daude. Udal ordezkariekin batzartu dira asteon, eta egon liteke irtenbideren bat: El Carmelo eta Karmengo Ama ikastetxeetan, eta Lauaxeta ikastolan badaude zelaiak, eta idatzi bat bidaliko diete horiek erabiltzeko akordio bat lortzea posible den galdetzeko. Udalak alokairu gastuekin lagunduko lieke. Bitartean, Jauregibarriko jarraituko dute, ilusioz: “Beharbada, hamar urte barru atzera begiratu, eta esango dugu: ‘Begira non hasi ginen eta non gauden’”.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

Mendi lasterketen EHko selekezioko hautatzailea

Lasterketak atzerrian

Askotan aipatu izan dugu mendiko lasterketek gero eta oihartzun handiagoa dutela eta, gaur egun, behin denboraldia hasita, ia asteburu guztietan aurki dezakegula lasterketaren bat gure inguruan. Fenomeno hori azken urteotan igarri dugu Euskal Herrian, baina hemendik kanpo aspaldiko kontua da. Europa ardatz hartuta, herrialderik esanguratsuenak Italia da. Nire iritzian, han jokatzen dira munduko lasterketarik ikusgarrienak.

Urteak dira lehen aldiz Italiako lasterketa batean korrika egin nuela. Pasturo izeneko herri txiki batean zen lasterketa, eta Munduko Kopako proba bat izaki, hainbat herrialdeko korrikalariak batu ginen bertan. Sekula ez dut ahaztuko lasterketa hura, hango maldak, hango mendiak eta paisaia. Giroa ere paregabea, zaletasun handia baitago Italian mendiko lasterketen inguruan. Maila handiko lasterketak antolatzen dituzte han, altuera handiko mendietan, eta parte-hartzaile kopurua itzela da, guztiak baitute parte hartzeko aukera: punta-puntako lasterkariak zein korrikalari apalek. Eta apurka-apurka, euskal korrikalariak ere hasi dira atzerriko probetan parte hartzen. Ez da harrizkoa parte-hartzaileen zerrendan izen euskaldunak ikustea. Gainera, aukera paregabea da mendi inguruetan oporralditxo bat igarotzeko eta turismoa egiteko.

Atzerriko lasterketetara joateko aukerarik ez duenak, jakina, aukera mordoa dauka Euskal Herrian. Asteburu honetan bertan, Larrabatzun.

Gazte mailan liga irabazi du Elorrioko Buskantzak

Hiru partidu kenduta, beste guztiak irabazi ditu



Elorrioko Buskantzako gazte mailako taldea lorpena ospatzen.

> ARETO FUTBOLA

Elorrioko Buskantzako gazteek Bizkaiko Bigarren Mailako liga txapelketa irabazi dute. Jokatu-tako 22 partiduetatik hemeretzi irabazi dituzte, eta bakarra galdu dute. Talderik golegileena izan da 111 golekin.

Datorren urtean Lehen Mailan jokatzeke eskubidea irabazi dute. Orain klubak hausnartu beharko du igotzea bideragarria edo komenigarria den ala ez. Alde batetik, alderdi ekonomikoa aztertu behar dute; Lehen Mailan gastuak handiagoak dira. Bestetik, gazte batzuk senior adina izango dute, eta, oro har, talde lehiakorra osatzeko moduan dauden begiratu behar dute mailari aurre egiteko.

Garcia eta Villa Bizkaia-Durango taldera batu dira

> TXIRRINDULARITZA

Mavi Garcia eta Ziortza Villa txirrindulariak fitxatu ditu Bizkaia-Durango taldeak. Garcia Palmakoa da, eta 31 urte ditu; distantzia luzeko duatloiko Espainiako txapelduna izana da, eta atletismoan garaipen asko lortu ditu. Orain txirrindularitzara igaroko da. Villa bizkaitarra da, eta orain arte iraupen lasterketetan ibili da. Horrela, Bizkaia-Durango taldeak hamahiru txirrindulari-gaz egingo dio aurre aurtengo denboraldiari.

INGEL ES IKASTAROAK
DUBLINEN
2015EKO UDA

DESKONTUEN LEHENENGO PLAZETAN

HAZTEAN (12-17)
- 10 EUNDA ORO ASTEAN
- ERONTZAK ETA OINTEERAK
- ESTADIA FAMILIAR

HELDUAK
- FIRST ETA ADVANCED IKASTAROK
- FLUENCY PLUS
- STUDY-WORK PROGRAMMA

INFORMAZIOA ETA ERRESERBA
985 754 219 (Lehera)
www.ikastaroakubera.com
www.ikastaroak.com

IKKASI Kaleburria, 30 - Buzon 2 Eka. 48200 BI BANGO T 945 734 299



ATLAS LANGUAGE SCHOOL

Leo

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DUBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoak, ateen, zokaloak, armairu armairaldeak eta enbikatutako altzarien lakadunak.
- Pinturak eta pinturak apaindurak.
- Era guztieneko zaharberitzeak egiten ditugu.

Etxeak Industrialdea, 45 Garita A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaioarnizatuak.com



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoelako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goleta, 10 - 2 esk. - ELORRIO
